Mairie de MACAYE | Nº 33 - Janvier 2025ko Urtarrila | MAKEAKO Herriko Etxea

# Bulletin Municipal - Herriko Aldizkaria




2 ...... Le mot du Maire
4 ...... Investissements 2024
6 ...... Les travaux prévus en 2025
7 ...... PLUi Labourd Est
7 ...... Maisons France Services
8 ...... Centre ELGAR à HASPARREN
10 .... Accès à la fibre et nouvelles constructions
12 .... Réseau Txik Txak en pays de Hasparren
15 .... Natura 2000 sur le massif du Baigura
16 .... Parc Naturel Régional Montagne Basque
16 .... Information APRN
18 .... Association Gure Gain
20 .... Association Gaztaina
22 .... Ecole Publique RPI de Macaye Mendionde
24 .... Baigura Ikastola - Mendien Artean
26 .... Urtsuko Xoriak
28 .... Jostakin
30 .... ACCA Makearrak - Makeako laborariak
32 .... Etxe Handia - Txir Txor
33 .... Ganixtarrak - Lagunak
34 .... Association des Parents d'Elèves
34 .... Trikili Trakala
36 .... Berriz Aintzina
38 .... Airetik
39 .... Informations diverses
40 .... Etat civil - Agenda - Divers

3 ...... Auzapezaren hitza
5 ...... 2024ko inbestimenduak
6 ...... 2025rako aurreikusi obrak.
7 ...... Lapurdi ekialdeko hTHP
7 ...... France Services etxeak
9 ...... Hazparneko ELGAR zentroa
10 .... Zuntz optikoa eta eraikuntza berriak
13 .... Berritasuna Hazparnealdeko Txik Txak sarean
15 .... Natura 2000 Baigura mendigunean
17 .... Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturala
17 .... EJEEk eman argibideak
19 .... Gure Gain elkartea
21 .... Gaztaina elkartea
22 .... Makeako eta Lekorneko eskola publikoa
25 .... Baigura Ikastola - Mendien Artean
27 .... Urtsuko Xoriak
29 .... Jostakin
31 .... ACCA Makearrak - Makeako laborariak
32 .... Etxe Handia - Txir Txor
33 .... Ganixtarrak - Lagunak
35 .... Gure Haurren Eskola
35 .... Trikili Trakala
37 .... Berriz Aintzina
38 .... Airetik
39 .... Argibide zenbait
40 .... Egoera zibila - agenda - gaineratekoak

# Le mot du Maire

Chers Makear,

Ainsi s'est achevée l'année 2024 avec une situation internationale inquiétante, avec de nombreux conflits interminables.
Au niveau national c'est le pays des incertitudes et des inquiétudes tant sur le plan institutionnel, qu'économique et financier.
Notre pays se révèle divisé dans une société fracturée.

Dans cette vie politique tourmentée, la commune est un repère pour nous, elle demeure un pôle de stabilité, elle est garante de la continuité du service public aux administrés.

C'est avec plaisir que je vous présente cette nouvelle édition « de parole » qui reflète une fois de plus l'énergie, la créativité et la solidarité qui anime notre village.
Une année 2024 remplie de festivités. Une mobilisation de tous les instants pour bien vivre ensemble, avec des investissements, des engagements et des réalisations.

Côté financier où une prudence s'impose, vu la conjoncture nationale, nous pouvons être fiers d'avoir des finances saines nous permettant de réaliser et terminer nos projets programmés.

Projets 2025 :
- Mise en œuvre de la réhabilitation de l'église et de ses abords (ouverture de l'église prévue à Pâques).

- Comme chaque année les travaux de voirie se poursuivront avec tout de même une étude attentive et particulière sur la priorité, sachant que les aides pour investissement du Conseil Départemental aux communes seront supprimées pour 2025, impactant notre budget pour les projets futurs.

Malgré ces incertitudes je serai toujours à votre écoute avec mon équipe, je m'y emploie chaque jour.
La commune soutiendra au mieux les associations du village qui participent et apportent dynamisme au bien vivre à Macaye tout en recherchant l'unité, la solidarité et la paix.

Merci aux élus municipaux qui m'entourent pour leur action, pour faire avancer notre collectivité.

Bonne année 2025 à chacune et chacun d'entre vous, santé, réussite, et bonheur.

Le Maire,
Alain DUBOIS

# Auzapezaren Hitza

Makear agurgarriak,

2024. urtea bururatu da nazio arteko egoera kezkagarrian, ezin bukatuzko gatazka anitzekin.

Nazio mailan egoera arrunt dudazkoa da, bai maila instituzionalean, bai ekonomikoan eta finantzarioan. Gure herrialdea zatitua agertu da jendarte hautsian.

Bizitza politika nahasi horretan, herria erreferentzia bat da guretako, egonkortasun lekua gelditzen da, herritarrei eman zerbitzu publikoaren bermea.

Plazerekin aurkezten dizuet kazeta honen edizio berria, aurten ere gure herriari bizia ematen dien energia, sormena eta elkartasuna erakusten duena.
2024. urtea, ekitaldiz josi urtea. Geldigabeko mobilizazioa elkarrekin ongi bizitzeko, inbestimenduekin, engaiamenduekin eta obratzeekin.

Diru mailan, nazio mailako egoera dela eta zuhur, egon behar dugu, eta harro izan gaitezke finantza sendoak baititugu programatu gure proiektuak obratzeko eta bururatzeko gisan.

2025eko proiektuak:
- Elizaren eta inguruen zaharberritzea (eliza Pazkoko irekitzekoa da berriz).

- Urte guziez bezala, errepide-obrak segituko dira lehentasunei manera ernean eta berezian behatuz, jakinez Departamendu Kontseiluak inbestimenduetarako eman laguntzak kenduko direla 2025eko, eta horrek ondorioak ukanen dituela gure geroko proiektuetarako.

Zalantza horiek izanagatik ere, ene taldearekin beti zuen zerbitzuko izanen nauzue, egun guziez horretan nago.
Herriak ahal bezain ongi sostengatuko ditu herriko elkarteak, Makeari dinamismoa ematen parte hartzen baitute, batasuna, elkartasuna eta bakea xerkatuz.

Milesker inguratzen nauten herriko hautetsiei, gure elkargoa aitzina joanarazteko egiten duten lanagatik.

Urte berri on zuetarik bakoitzari, osagarriarekin, arrakastarekin eta zorionarekin.

Auzapeza,
Alain DUBOIS

# Investissements 2024

| Dépenses | Recettes | |
|---|---|---|
| 14 250 € | | **Acquisition de matériel et mobilier :**<br>Ce chapitre financé par les fonds propres de la commune représente une dépense de 14 250 € et concerne les principaux achats suivants :<br>* Une débroussailleuse pour 1 100 €.<br>* Un four et un lave vaisselle installés au foyer pour 6 250 €.<br>* Renouvellement du photocopieur de la mairie pour 6 600 €.<br>* Un four coûtant 400 € pour la cantine de l'école. |
| 82 000 € | 11 700 € | **Voirie communale :**<br>Le montant investi est de 82 000 € et concerne les travaux sur Laubordetako Bidea et le parking du bourg. La subvention versée par le Conseil Départemental est de 11 700 €. |
| 33 000 € | 11 000 € | **Aire d'initiation sportive :**<br>Située entre l'école et le mur à gauche, elle a coûté 33 000 €.<br>L'État nous a versé une aide de 4 800 € en 2024 complétée par un montant de 6 200 € comptabilisé en 2025.<br>Cette aire de jeux est accessible à tous les enfants depuis le 1er novembre 2024. En complément, depuis cette aire, les jeux de l'école sont ouverts à tous en dehors des horaires scolaires.<br>Deux tables de pique-nique agrémentent cet espace d'échange et de rencontre et une allée sécurisée reliant le mur à gauche au parking, complète l'aménagement de ce lieu. |
| 18 500 € | | **Eglise :**<br>Le projet de rénovation et de mise en sécurité de l'église est démarré avec un montant de 18 500 € pour des frais d'études en 2024. |
| 138 800 € | 155 000 € | **Lotissement URTSU :**<br>Les travaux d'aménagement sont pratiquement terminés.<br>Les honoraires de maîtrise d'œuvre on coûté 6 500 € en 2024 et les travaux (Terrassement, voirie, réseaux eaux usées, pluviales, eau potable, réseau sec) s'élèvent à 132 300 €.<br>Le tout est financé par un emprunt de 155 000 € qui sera remboursé par la vente des terrains.<br>Deux lots (sur les cinq) sont encore disponibles.<br>Nous avons profité de ces travaux pour canaliser et sécuriser le fossé en bord de la départementale sur 50 mètres. |
| 59 000 € | | **Le remboursement de la dette** représente un capital de 59 000 € en 2025. |
| | 18 500 € | **Le FCTVA** récupéré en 2024 est de 18 500 €. |
| | | **L'élagage du chemin Urzuria**, fait en septembre, a été pris en charge par les propriétaires concernés et la mairie.<br>**La nouvelle station d'épuration** est construite, sa mise en service sera effective en février 2025. |

# 2024ko inbestimenduak

| Gastuak | Irabaziak | |
|---|---|---|
| 14 250 € | | **Materialaren eta altzarien eskuratzea :**<br>Herriaren funtsek finantzatu saila da, eta 14 250 €-ko gastua izan da 2024an, erosketa nagusi hauetarako:<br>* Sasi garbitzeko tresna: 1 100 €<br>* Labe bat eta baxera-ikuzgailu bat biltokirako: 6 250 €.<br>* Herriko Etxerako fotokopiagailu berria erostea: 6 600 €<br>* Labe berria eskolako kantinarako: 400 €. |
| 82 000 € | 11 700 € | **Herriko errepideak :**<br>Inbestitu zenbatekoa 82 000 €-koa da Laubordetako bideko obretarako eta herri barneko aparkalekurako. Departamendu Kontseiluak eman dirulaguntza: 11 700 €. |
| 33 000 € | 11 000 € | **Kirol iniziaziorako gunea :**<br>Eskolaren eta ezker paretaren artean kokatua da eta 33 000 € kostatu du.<br>Estatuak 4 800 €-ko dirulaguntza eman digu 2025ean kontabilizatu 6 200 €-ko osagarriarekin.<br>Jostaleku hori haur guziei irekia da 2024ko azaroaren 1az geroztik. Gainera, jostaleku horretatik eskolako jostalekua ere denei irekia da eskolako tenoreez kanpo.<br>Piknikatzeko bi mahai ere ezarri dira trukatzeko eta elkartzeko, eta etorbide segurua ezker paretatik aparkalekura joateko. |
| 18 500 € | | **Eliza :**<br>Eliza berritzeko eta segurtasun neurrien arabera ezartzeko proiektua hasi da 18 500 €-rekin ikerketa gastuak ordaintzeko 2024an. |
| 138 800 € | 155 000 € | **URTSU lotizamendua :**<br>Antolamendu obrak kasik bururatuak dira.<br>Obralaritzak 6 500 € kostatu du 2024an eta obrek (lur berdintzea, errepideak, ur zikinen, euri uren, edateko uraren sareek eta sare idorrak) 132 300 €.<br>Hori dena 155 000 €-ko maileguaren bidez finantzatu da, eta lursailen salmentaren bidez ordainduko da.<br>Bost lur-zatietarik bi oraino salgai dira.<br>Obra horiez baliatu gara departamenduko errepide bazterreko arroila bideratzeko eta segurtatzeko 50 metrotan. |
| 59 000 € | | **Zorraren ordainketa** 59 000 €-koa izanen da 2025ean. |
| | 18 500 € | **2024an berreskuratu BEZaren** ordainsari funtsa 18 500 €-koa zen. |
| | | **Urzuriko bidearen xedarratzea** irailean egin zuten hunkituak ziren jabeek eta Herriko Etxeak.<br>**Araztegi berria** eraikia da, 2025eko otsailean ezarriko da martxan. |



Aire d'initiation sportive / Kirol iniziaziorako gunea





Parking du bourg / Aparkalekua

Elagage / Xedarratzea





Lotissement URTSU / URTSU lotizamendua

## Les travaux prévisibles en 2025 — 2025ean egin daitezkeen obrak

La réfection de la voirie concernera :

- Urzuriko Bidea
- Etxarteko Bidea
- Aziotzeko Bidea sur une longueur de 100 mètres

Les travaux pour la mise en conformité de l'église commenceront le 6 janvier pour une ouverture espérée pour Pâques.

Errepideen berritzea:

- Urzuriko bidea
- Etxarteko bidea
- Aziotzeko bidea 100 metroko zatian

Eliza arauen arabera ezartzeko obrak urtarrilaren 6an hasi dira, eta eliza Pazkoz irekitzea espero da.

## La concertation est ouverte !

### Comment participer ?

**3 moyens d'inscrire une observation :**
- Registre papier disponible au Pôle et en Mairie (dans une boîte dédiée)

- Registre en ligne : https://www.registre-dematerialise.fr/5462/

- Ecrire un courrier au Président de la CAPB

**A savoir :**
Il n'est pas nécessaire d'inscrire une contribution dans plusieurs registres.

Les contributions sont toutes analysées. La concertation se termine à l'arrêt du PLUi.

Des réunions publiques, forums citoyens ou évènements seront ponctuellement organisés

### Comment s'informer ?

Sur le site internet de la CAPB, la page relative à la procédure sera mise à jour en fonction de l'avancement du PLUi :
https://www.communaute-paysbasque.fr/

### Les prochaines étapes

**2024 (en cours) :** Diagnostic du territoire

**2025 :** Débat du Projet d'Aménagement et de Développement Durables (PADD) par les élus

**2027 :** Arrêt du PLUi et bilan de la concertation + enquête publique

**2028 : Approbation = le PLUi rent vigueur**

Lettre d'information du public n°1
*Novembre 2024*

**PLUi Labourd Est**

1. informazio gutuna
*2024ko azaroa*

**Lapurdi ekialdeko hTHP**

## Hitzartze fasea abian da !

### Nola parte har dezaket ?

**Ohar bat helarazteko hiru bide :**
- Paperezko erregistroa eskuragarri da Elkargoaren Etxean eta Herriko Etxean (horretarako den kutxa batean)

- Lineako erregistroa: https://www.registre-dematerialise.fr/5462/

- Gutun bat idatziz Euskal Elkargoko lehendakariari

**Jakin beharrekoa :**
Ez da beharrezkoa ohar bat idaztea erregistro bat baino gehiagotan.

Ohar guziak aztertuko dira. Hitzartze fasea bururatuko da hTHP onartuko delarik.

Bilkura publikoak, eztabaida herritarrak edo gertakariak antolatuko dira, noiztenka.

### Nola informa naiteke ?

Euskal Elkargoaren webgunean, prozedurari dagokion web-orria eguneratuko da hTHPen aitzinamenduaren arabera :
https://www.communaute-paysbasque.fr/

### Hurrengo urratsak

**2024 (egiten ari) :** Lurraldearen diagnostikoa

**2025 :** Antolaketa eta Garapen Iraunkorren Proiektua (AGIP) eztabaidatzea, hautetsien artean

**2027 :** hTHPen aldeko erabakia hartzea eta hitzartze fasearen azterketa egitea + inkesta publikoa

**2028 : Onarpena = hTHP indarrean sartzen da**

| ***Maisons France Services*** | ***France Services etxeak*** |
|---|---|
| L'Etat a fait le choix de développer les maisons France Services sur l'ensemble du territoire. | Estatuak hautatu du France Services etxeak garatzea lurralde osoan. |
| L'objectif est de permettre un accompagnement sur tous les sujets administratifs : que ce soit une demande de carte grise, une question sur vos impôts, votre retraite, vos allocations familiales … | Xedea da laguntza proposatzea administrazio gai guzietan: izan dadin autoaren jabego agiria galdatzeko, galdera bat egiteko zergei buruz, erretretari buruz edo familia laguntzei buruz... |

**Démarches et services des France services**

- Agence nationale des titres sécurisés (ANTS)
- Allocations familiales
- Assurance Maladie
- Assurance retraite
- Chèque énergie
- Finances publiques
- France Rénov'
- France Travail
- La Poste
- Mutualité sociale agricole (MSA)
- Point-justice

| | |
|---|---|
| A proximité de Macaye, vous pouvez accéder à ces services auprès des bureaux de poste suivants : | Makeatik hurbil, zerbitzu horiek badituzu posta bulego hauetan: |

| ***France services La Poste d'Hasparren*** | ***France services La Poste d'Espelette*** | ***France services La Poste d'Ustaritz*** |
|---|---|---|
| - France services multisites<br>- 2 place de Verdun La Poste<br>64240 Hasparren<br>- 05 59 15 12 56<br>- hasparren@france-services.gouv.fr | - France services<br>- Place du marché, Bureau de Poste<br>64250 Espelette<br>- 05 59 58 84 05<br>- espelette@france-services.gouv.fr | - France services multisites<br>- Place de la Poste<br>64480 Ustaritz<br>- 05 59 01 07 53<br>- ustaritz@france-services.gouv.fr |

| | |
|---|---|
| Pour plus de renseignements, n'hésitez pas à consulter le site https://www.france-services.gouv.fr/ | Argibide gehiagoren ukaiteko: https://www.france-services.gouv.fr/ |

# Services et permanences au centre ELGAR à HASPARREN

**Les services**

- Centre Médico-Psychologique – C.M.P. – Antenne du CHCB - Téléphone : 05 59 29 12 90
- Service Départemental des Solidarités et de l'Insertion - S.D.S.E.I. PAYS Basque Intérieur - 05 59 29 61 00
- Médiathèque Pierre Espil - Téléphone : 05 59 70 16 83
- Sauvegarde de l'Enfance du Pays Basque – S.E.P.B. / C.M.P.P. - Téléphone : 05 59 29 48 56

***Maison de services publics ELGAR***
***11 rue Gaskoina, 64240 HASPARREN***
***Téléphone : 05 59 70 20 36***

**Les permanences**

- ADOENIA – Lieu d'écoute et d'accompagnement,
gratuit, anonyme et confidentiel. Destiné aux adolescents de 11 à 19 ans et leur famille.
Horaires d'ouverture : Du mercredi après-midi de 14h à 18h00.
Pour tout renseignement ou prendre rdv, téléphone : 05 59 64 22 52
Email : maisondesadolescents@gmail.com
Site Internet : www.adoenia.fr

- ADAPEI – Association Départementale des Parents et Amis de Personnes Handicapées Mentales
Le 2eme mercredi de chaque mois de 9h00 à 12h00 (sur RDV)

- AERM 64 – Association Espace Rencontre et Médiation 64
Le jeudi de 9h00 à 12h (sur RDV) - Téléphone secrétariat : 05 59 30 69 49

- ANPAA 64 – Association Nationale de Prévention en Alcoologie et Addictologie 64
Le vendredi de 9h à 12h (sur RDV) - Téléphone : 05 59 63 63 63

- Assistante sociale de l'assurance maladie
Sur RDV - Téléphone : 05 59 42 77 10

- CAF
Le mercredi tous les 15 jours - sur RDV au 3230 ou www.caf.fr

- CARSAT – Caisse d'Assurance Retraite et de la Santé au Travail
Le 3ème mercredi des mois impairs de 9h00 à 12h30 et de 13h30 à 16h (sur RDV)
Téléphone : 3960

- Consultation juridique
Horaires d'ouverture : 3° Vendredi du mois
Sur RDV - Téléphone : 05 59 70 20 36

- Écrivain public numérique – Accompagne le public dans ses démarches en ligne sur internet
Le Mardi matin (sur RDV) - Téléphone : 05 59 70 29 07 (CCAS)

- Mission locale Avenir Jeunes
Le Lundi de 14h à 17h (sur RDV) et le Jeudi de 9h à 12h00 (sans RDV)
Téléphone : 07 86 96 23 98

- PLIE – Plan Local pour l'Insertion et l'Emploi sur le Pays-Basque
Sur RDV - Téléphone : 05 59 50 13 70

- SPIP – Service Pénitentiaire d'Insertion et Probation de Bayonne
4ème Vendredi du mois (sur RDV) - Téléphone : 05 59 15 11 12

# Zerbitzuak eta permanentziak Hazparneko ELGAR zentroan.

**Zerbitzuak**

- Centre Médico-Psychologique – C.M.P. – Antenne du CHCB - Telefono zenbakia : 05 59 29 12 90
- Service Départemental des Solidarités et de l'Insertion – S.D.S.E.I. PAYS Basque Intérieur - 05 59 29 61 00
- Médiathèque Pierre Espil - Telefono zenbakia : 05 59 70 16 83
- Sauvegarde de l'Enfance du Pays Basque – S.E.P.B. / C.M.P.P. - Telefono zenbakia : 05 59 29 48 56

***ELGAR, Zerbitzu publikoen etxea***
***Gaskoina karrika, 11, 64240 HAZPARNE***
***Telefono zenbakia: 05 59 70 20 36***

**Permanentziak**

- ADOENIA – Entzuteko eta laguntzeko lekua,

dohainik, anonimoa eta konfidentziala. 11 eta 19 urte arteko gazteentzat eta haien familientzat.
Irekitze tenoreak: asteazken arratsaldeetan 14:00etatik 18:00etara.
Argibide gehiagoren ukaiteko edo hitzordua hartzeko, Telefono zenbakia: 05 59 64 22 52
E-mail: maisondesadolescents@gmail.com
Webgunea: www.adoenia.fr

- ADAPEI – Adimen urriko pertsonen buraso eta lagunen departamenduko elkartea

Hilabete bakoitzeko 2. asteazkenean, 9:00etatik 12:00etara (hitzordua harturik)

- AERM 64 – Topaketa eta bitartekaritza lekua 64

Ostegunetan 9:00etatik 12:00etara (hitzordua harturik) -
AERM 64ko idazkaritza telefono zenbakia 05 59 30 69 49

- ANPAA 64 - Alkoholismoaren eta Mendekotasunaren Prebentziorako Elkarte Nazionala

Ostiraletan 9:00etatik 12:00etara (hitzordua harturik) - Telefono zenbakia: 05 59 63 63 63

- Erien asurantzako jendarte laguntzailea - Hitzordua harturik - Telefono zenbakia: 05 59 42 77 10

- FaLK

Asteazkenetan, bi astetarik behin - Hitzordua harturik 3230 zenbakian edo www.caf.fr webgunean

- CARSAT – Erretreta eta Laneko Osasun asurantza kutxa

Hilabete bakoitietako 3. asteazkenean, 9:00-12:30 eta 13:30-16:00 (hitzordua harturik)
Telefono zenbakia: 3960

- Kontsulta juridikoak

Irekitze tenoreak: hilabeteko 3. ostiraletan
Hitzordua harturik - Telefono zenbakia: 05 59 70 20 36

- Idazle publiko numerikoa – Publikoa laguntzen du lineako desmartxak egiteko Interneten

Astearte goizetan (hitzordua harturik) - Telefono zenbakia: 05 59 70 29 07 (GEUZ)

- Gazteen Tokiko Misioa

Astelehenetan 14:00-17:00 (hitzordua harturik) eta ostegunetan 9:00-12:00 (hitzordurik gabe)
Telefono zenbakia: 07 86 96 23 98

- GTEP - Gizarteratzearen eta Enpleguaren aldeko Tokiko Plana Ipar Euskal Herrian

Hitzordua harturik - Telefono zenbakia: 05 59 50 13 70

- SPIP - Baionako Presondegiko Gizarteratze Eta Baldintzapeko Askatasun Zerbitzua

Hilabeteko 4. ostiralean (hitzordua harturik) - Telefono zenbakia: 05 59 15 11 12

| *Accès à la fibre et nouvelles constructions* | *Zuntz optikoa eta eraikuntza berriak* |
|---|---|

THD64 (filiale de XpFibre) est le délégataire de La Fibre64 (Syndicat départemental déléguant) pour le déploiement du réseau en fibre optique des Pyrénées-Atlantiques dans le cadre d'une Délégation de Service Public.
Jusqu'au 1er janvier 2022, Orange assurait la construction du génie civil nécessaire sur la voie publique et le tirage du câble en cuivre permettant l'accès au téléphone et à l'ADSL pour le raccordement des maisons individuelles neuves.
Désormais, Orange ne construit plus le génie civil nécessaire dans les zones où le déploiement de la fibre a commencé.
Cette précédente obligation d'Orange liée au Service Universel n'existe plus.
Désormais et en référence à l'article L.332-15 du code d'urbanisme, le demandeur doit réaliser et financer tous les travaux nécessaires à la viabilisation de son terrain aux réseaux de télécommunication (au même titre que l'adduction aux autres réseaux) jusqu'au point de démarcation avec le réseau existant, y compris sur la partie publique au droit du terrain. A cet effet, THD64, en tant qu'opérateur d'infrastructure en fibre optique de la zone, pourra être contacté pour chaque demande.
D'autre part, les projets immobiliers neufs tels que les lotissements doivent être déclarés par l'Aménageur.
Par conséquent, les administrés concernés sont invités à déclarer leur logement neuf ou en rénovation sur le site thd64.fr dans la Rubrique " Déclarer une nouvelle construction " : https://immobilier-neuf.xpfibre.com/#/home.
Vous trouverez ci-contre le Guide nouvelle construction  thd64.

THD64 (XpFibre enpresaren adarra) La Fibre64 enpresaren ordezkaria da Pirinio Atlantikoetan zuntz optikoaren hedatzeko Zerbitzu Publiko Ordezkaritzaren karietara.

2022ko urtarrilaren 1a arte, Orange enpresak zuen beharrezko ingeniaritza eraikitzen eremu publikoan baita ere kobrezko kableak tiratzen telefonoa eta ADSLa ukaiteko etxe berri indibidualetan.
Orain, Orangek ez du gehiago beharrezko ingeniaritza zibila eraikitzen zuntz optikoaren hedapena hasia den eremuetan.

Zerbitzu Unibertsalari lotu Orangeren lehengo betebehar hori ez da gehiago existitzen.
Orain, Hirigintza Kodeko L.332-15 artikuluaren arabera, galdatzaileak ditu egin behar eta finantzatu bere lursailaren egokitzeko beharrezkoak diren obra guziak (beste sareen ekartzearen gisan), dagoen sarearen mugaraino, parte publikoa barne.
Horretarako, THD64rekin harremanetan jar daiteke galde baten egiteko, zuntz optikoaren azpiegituren operadorea baita lurraldean.

Bestalde, higiezin berrien proiektuak, adibidez, lotizamenduak, antolatzaileak ditu deklaratu behar.

Ondorioz, hunkituak diren herritarrek beren bizitegi berria edo berritzen ari direna behar dute deklaratu thd64.fr webgunean, “Eraikuntza berri bat deklaratu” atalean:
https://immobilier-neuf.xpfibre.com/#/home.

Hemen atzemanen duzu Thd64ren eraikuntza berrien gidaliburua:

## Quelles pièces justificatives dois-je fournir pour faire une déclaration en ligne ?

### Si vous êtes un particulier (maison ou logements de 1 à 3 locaux à raccorder) :

- un certificat d'adressage ;
- un plan cadastral ;
- un plan de masse ;
- un permis de construire validé ;
- une photo de situation.

### Si vous êtes un promoteur (logements collectifs ou lotissement de 4 locaux ou plus à raccorder) :

- un arrêté du PC / PA ;
- un plan de situation ;
- un plan de masse ;
- un plan de fibrage (si existant) ;
- un certificat d'adressage ou de numérotation ;
- une convention OI (Opérateur d'Infrastructure) dûment complétée et signée (téléchargeable sur notre site accessible via le QR Code ci-dessous).

**Rendez-vous sur https://immobilier-neuf.xpfibre.com pour déposer votre demande de raccordement au réseau Fibre optique.**

XpFibre

THD 64

**Vous avez un projet de construction immobilière ?**
**XpFibre vous accompagne pour préparer sereinement votre accès à la Fibre.**

### Quelles sont les 2 étapes indispensables pour bénéficier de la Fibre optique ?

1. Déclarez à XpFibre votre projet immobilier pour réaliser son adduction au réseau de télécommunications sur la voie publique.
2. Après avoir réalisé les travaux nécessaires, choisissez votre fournisseur d'accès à Internet qui effectuera le raccordement final entre le point de branchement optique sur voie publique et l'intérieur de votre logement.

### Que signifie « adducter une construction neuve » ?

Dans le cas d'un projet immobilier neuf, qu'il soit mené par un particulier ou par un promoteur, le raccordement à la fibre optique peut nécessiter la réalisation de travaux de génie civil. Ces travaux d'acheminement de la Fibre au logement s'effectuent sur la parcelle privative et/ou sur le domaine public. Il s'agit des travaux d'adduction au réseau de fibre optique.




*Illustration de la responsabilité de chacun et de la prise en charge des travaux à effectuer, en partie privée ou publique.*

### Pourquoi dois-je financer mon adduction au réseau de télécommunications ?

Le bénéficiaire doit financer le raccordement de sa maison au réseau de télécommunications comme il le fait pour l'eau, l'assainissement, l'électricité et le gaz.

### Quelle est la réglementation en vigueur ?

La réglementation impose d'installer un réseau de communications électroniques à Très Haut Débit en fibre optique qu'il s'agisse de constructions neuves ou de bâtiments existants faisant l'objet de travaux de rénovation et nécessitant une demande de permis de construire.

### Quels sont les délais règlementaires à respecter ?

**Dès l'obtention du permis de construire ou au plus tard à J-6 mois**
Remplir le formulaire en ligne et fournir les documents nécessaires à XpFibre.

**Au plus tard à J-3 mois**
Le demandeur a finalisé ses travaux d'adduction (fourreaux télécoms) en partie privative et sur domaine public « au droit du terrain ».

**Au plus tard à J-2 mois**
Le demandeur met à la disposition de XpFibre les documents attestant de la réalisation des travaux réalisés (Document d'Ouvrages Exécutés).

**Au plus tard à J-1 mois**
XpFibre informe les Fournisseurs d'Accès à Internet que l'adresse est éligible à la fibre optique (début du gel réglementaire).

**Jour J**
Emménagement et souscription possible auprès d'un Fournisseur d'Accès à Internet.

### Quel type de forfait XpFibre dois-je choisir pour effectuer mon raccordement ?

**Forfait plus**
XpFibre s'occupe de tout : **gestion administrative du projet de raccordement, devis de réalisation des travaux de génie civil avec l'intervention d'une équipe sur place.**
**990 €**

**Forfait basique**
XpFibre gère à distance la partie administrative de votre projet, **les travaux de génie civil sont à réaliser par l'entreprise de votre choix.**
**660 €**

*En cas d'échec de raccordement, des frais d'audit et de remise en conformité des travaux seront demandés au déclarant*

# DU NOUVEAU SUR LE RESEAU TXIK TXAK, EN PAYS DE HASPARREN !

## *VOS LIGNES EVOLUENT !*

À partir du 06 janvier prochain.

- Votre ligne 11 devient LA LIGNE 41 => (Tardets-Sorholus - Mairie < > Bayonne - Place des Basques)
- Votre ligne 13 devient LA LIGNE 43 => (Hasparren - Lycée Armand David < > Bayonne - Place des Basques)
- Nouvelle LIGNE 60 => (Cambo-les-Bains - Gare Routière < > Saint-Palais – Église)
- Nouvelle ligne 40 => (Louhossoa - Cambo - Espelette ou Bayonne – Place des Basques)

À partir de cette date, les lignes 41 et 43 évoluent avec une fréquence de passage renforcée et des horaires mieux adaptés à vos besoins.

- Horaires du service : de 6h25 à 18h55 sur la ligne 40
- Horaires du service : de 5h45 à 19h15 sur la ligne 41
- Horaires du service : de 6h23 à 19h25 sur la ligne 43
- Horaires du service : de 6h25 à 17h45 sur la ligne 60

***+ de Fréquence***

Un bus toutes les 30 minutes aux heures de pointe, le matin et le soir pour la 43

- 43 => 12 allers-retours/jour soit 4 de plus qu'aujourd'hui + augmentation le week-end.
- 60 => 5 allers-retours/jour en semaine

***Les nouveautés !***

- Nouvelle liaison directe entre Saint-Palais et Cambo-les-Bains avec la ligne 60
- Une ligne 43 renforcée 7J/7, + 2 allers-retours le dimanche
- 100% des communes desservies par les transports en commun avec la mise en place du Transport à la Demande (TAD), en complément des lignes de bus

## *LE TRANSPORT A LA DEMANDE pour tous !*

Votre commune est desservie par le nouveau service de Transport à la Demande (TAD) TXIK TXAK !
Sur mesure : TXIK TXAK vient vous chercher à l'adresse de votre choix et vous emmène vers une sélection de points de dépose : commerces, lieux de santé, correspondances bus, etc.
Réservez jusqu'à 1 heure avant votre départ ou planifiez vos trajets jusqu'à 1 mois à l'avance. Réservation par téléphone au **05 47 75 76 64**.
Courant 2025 via le site internet et l'application. (Réservez votre trajet retour de la même façon que l'aller et TXIK TXAK vous ramène à votre adresse.)

Accessibilité pour tous : tous les véhicules sont accessibles aux personnes à mobilité réduite.
Horaires de fonctionnement : lundi à samedi de 7h30 à 19h00. Ne circule pas les dimanches et jours fériés.
Tarifs : le Transport à la Demande est accessible au même tarif que le bus, et il est inclus dans les abonnements.

***TXIK TXAK facilite le covoiturage*** au Pays Basque avec la plateforme BlaBlaCar Daily. Les offres de covoiturage sont rassemblées sur le calculateur d'itinéraire TXIK TXAK.

Comment profiter de l'offre covoiturage TXIK TXAK ?

Je suis conducteur

- Je me crée un compte sur la BlablaCar Daily.
- Pour chaque trajet, TXIK TXAK me rembourse entre 2€ et 3€.
- Les frais sont directement remboursés sur l'application de covoiturage dans la limite maximum de 100€ par mois !

Je suis passager

- Je consulte le calculateur d'itinéraire TXIK TXAK pour trouver l'annonce qui me convient.
- Je choisis une annonce et je bascule sur la plateforme de covoit.
- Plus rien à faire ! Tous les trajets sur le périmètre de TXIK TXAK sont automatiquement gratuits.

+ D'INFOS et tous les horaires sur TXIKTXAK.fr
05 47 75 76 64 (du lundi au samedi de 7h à 20h, le dimanche de 9h à 12h30 et de 14H00 à 17h30 et jours fériés hors 1er mai).

***ZURE LINEAK ALDATU DIRA !***

Urtarrilaren 6az geroztik.

- Zure 11 linea 41 LINEA bilakatu da => (Atharratze-Sorholüze – Herriko Etxea <> Baiona – Euskaldunen plaza)
- Zure 13 linea 43 LINEA bilakatu da => (Hazparne – Armand David lizeoa <> Baiona – Euskaldunen plaza)
- 60 LINEA berria (Kanbo – Autobus geltokia <> Donapaleu – Eliza)
- 40 linea berria (Luhuso - Kanbo – Ezpeleta edo Baiona – Euskaldunen plaza)

Urtarrilaren 6tik goiti, 41 eta 43 lineak aldatzen dira eta usuago iraganen dira zure beharrei egokitu tenoreetan.

- Zerbitzuaren tenoreak: 40 linea: 6:25-18:55
- Zerbitzuaren tenoreak: 41 linea: 5:45-19:15
- Zerbitzuaren tenoreak: 43 linea: 6:23-19:25
- Zerbitzuaren tenoreak: 60 linea: 6:25-17:45

***Maizago***

Autobus bat 30 minutu guziez puntako tenoreetan, goiz eta arratsetan 43 linean

- 43 => 12 joan-etorri egunean, hots, egun baino 4 aldiz gehiago + asteburuetan autobus gehiago.
- 60 => 5 joan-etorri egunean astean zehar

***Berritasunak !***

- Lotura zuzen berria Donapaleu eta Kanboren artean 60 linearen bidez
- 43 linea azkartua egun guziez + 2 joan-etorri igandeetan
- Garraio publikoak herri guzietatik iragaten dira Eskaera Bidezko Garraioari (EBG) esker, autobus lineen osagarri

***ESKAERA BIDEZKO GARRAIOA denendako!***

Zure herrian TXIK TXAK sareko Eskaera Bidezko Garraioa (EBG) iragaten da.
Neurrira egina: TXIK TXAK zuk hautatu helbidera jinen zaizu xerka eta hautatu gune batzuetara eramanen zaitu: saltegietara, osasun-guneetara, autobusera, etab.
Erreserba ezazu abiatzea baino oren bat lehenago edo programatu ezazu 1 hilabete aitzinetik. Erreserba telefonoz: **05 47 75 76 64**.
2025ean, webgunearen eta aplikazioaren bidez. (Itzultzeko bidaia erreserba ezazu joateko bidaia bezala, eta TXIK TXAKek zuzenki etxera eramanen zaitu).

Denendako: ibilgailu guziak mugikortasun urriko pertsonendako egokituak dira.
Funtzionamendu tenoreak: astelehenetik larunbatera, 7:30etik 19:00etara. Zerbitzurik ez da igande eta besta egunetan.
Prezioak: Eskaera Bidezko Garraioak autobusaren prezio bera du, eta abonamenduen barne ere da.

***TXIK TXAK sareak autokidetza errazten du*** Ipar Euskal Herrian BlaBlaCar Daily plataformaren bidez.
Autokidetza eskaintzak TXIK TXAKen ibilbide kalkulagailuan bilduak dira.
Nola balia TXIK TXAKen autokidetza eskaintza?

<u>Gidaria naiz</u>

- Kontu bat sortzen dut BlablaCar Daily plataforman.
- Ibilbide bakoitzerako TXIK TXAKek 2€ eta 3 €-ren artean ordaintzen dit.
- Gastuak zuzenki ordaintzen dira autokidetza aplikazioan, gehienez 100 € hilabetean.

<u>Bidaiaria naiz</u>

- TXIK TXAKen ibilbide kalkulagailuari so egiten diot egoki zaidan bidaia atzemateko.
- Batto hautatzen dut eta autokidetza plataformara bideratua naiz.
- Ez dut besterik deus egiteko! TXIK TXAKen eremuan diren bidaia guziak automatikoki dohainik dira.

Argibide gehiago eta tenoreak TXIKTXAK.fr webgunean
05 47 75 76 64 (astelehenetik larunbatera 7:00-20:00, igandeetan eta besta egunetan (Maiatzaren 1ean salbu) 9:00-12:30 eta 14:00-17:30.



USTARITZ
UZTARITZE
Eliza
Astoloberria
Jatxou
JATXOU
JATSU
HALSOU
HALTSU
Halsou
LARRESSORE
LARRESORO
Route des Cimes
Place
Sorhaïnde
Behereko
Plaza
CAMBO-LES-BAINS
KANBO
Gare de Cambo-les-Bains
Arnaga
Gare Routière
Arriéta
Pont des Thermes
Elorrimendi
Altzueta
ESPELETTE
EZPELETA
Mendi
Alde
Bourg
Pilota Plaza
ITXASSOU
ITSASU
40
Louhossoa - Cambo - Espelette ou Bayonne
Luhuso - Kanbo - Ezpeleta edo Baiona
Elissetche ahizpak
LOUHOSSOA
LUHUSO
MACAYE
MAKEA
Macaye
Mendionde
MENDIONDE
LEKORNE
Aldabidea
HASPARREN
HAZPARNE
Mendeala
CFA
Armand
David
Lauak
AYHERRE
AIHERRA
BONLOC
LEKUINE
Mairie
60
Cambo - Saint Palais
Kanbo - Donapaleu
HÉLETTE
HELETA
Transport à la demande

Le Baigura a son DOCOB

Lors du Comité de Pilotage du 3 décembre 2024, le Document d'Objectifs (DOCOB) du site Natura 2000 « Massif du Baigura » a été adopté par l'assemblée présente en mairie de Hélette.

Un petit retour sur le contexte

Le Baigura a été désigné Natura 2000 en 2004, une désignation qui s'explique par la présence d'espèces et habitats naturels particuliers menacés au niveau européen. Le site inclut en effet des milieux diversifiés de landes, forêts, milieux humides et prairies, qui abritent une faune et une flore riches et variées.

Il n'avait jusqu'alors pas fait l'objet d'élaboration de DOCOB, à savoir un document d'objectifs qui définit le plan d'actions à mener sur le site. C'est en 2022 que la Communauté d'Agglomération Pays-Basque a été désignée comme structure porteuse de l'élaboration du DOCOB avec un Comité de Pilotage (COPIL) présidé par Jean-Claude Iriart, et constitué par les acteurs (élus, agriculteurs, forestiers, chasseurs, pêcheurs, propriétaires terriens, associations, usagers et experts) des sept communes (Louhossoa, Macaye, Mendionde, Hélette, Irissarry, Ossès et Bidarray).

Comment a été élaboré ce DOCOB ?

Le DOCOB est issu de deux ans de concertation, menée avec l'appui de EHLG et du Conservatoire des Espaces Naturels. Les réunions au sein des communes, COPIL et groupes de travail thématiques ont permis de dresser un diagnostic des activités économiques sur le massif. Ces résultats ont été croisés avec les enjeux écologiques, permettant de définir des objectifs et des actions pour concilier préservation du massif et maintien des activités économiques.

Les 5 grands enjeux du massif, pour lesquels plus d'une trentaine d'actions ont été identifiées sont les suivants :

- Les milieux agropastoraux et landes ibéro-atlantiques,
- Les prairies de fauche thermo-atlantiques,
- Les complexes d'habitats humides,
- Les milieux forestiers et leurs espèces associées,
- Les chiroptères ( chauve-souris)

Dès 2025, le site entrera en animation pour la mise en œuvre des actions : proposition de contrats agricoles MAEC (Mesures Agro-Environnementales et Climatiques), contrats forestiers, journées d'animation, de sensibilisation, etc.

Vous pourrez prochainement retrouver le détail de ce DOCOB en mairie ou sur le site de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.

Baigurak badu bere DOCOB

2024ko abenduaren 3ko Gidaritza Batzordean, Heletako Herriko Etxean bildua zen biltzarrak "Baigura mendiguneko" Natura 2000 guneko helburu-dokumentuak onartu ditu.

Testuingurua oroitarazteko

Baigura 2004an Natura 2000 izendatu zuten, bertan Europa mailan arriskuan dauden espezieak eta habitat naturalak baitaude. Izan ere, Baiguran ingurumen mota desberdinak badira, hala nola larreak, oihanak, ingurumen hezeak eta pentzeak, eta fauna eta flora aberatsa eta aniztuna bizi da bertan.

Orain arte ez zen gunean bertan eramateko ekintza-planak definitzeko helburu-dokumentu baten xede izan. 2022an zen Euskal Hirigune Elkargoa izendatu helburu-dokumentua apailatzeko egitura gisa, zazpi herrietako (Luhuso, Makea, Lekorne, Heleta, Irisarri, Ortzaize, Bidarrai) eragileek (hautetsiak, laborariak, oihanzainak, ihiztariak, arrantzaleak, lur-jabeak, elkarteak, erabiltzaileak eta adituak) osatu Gidaritza Batzorde batekin (GidaB).

Nola apailatu zen helburu-dokumentua?

Helburu-dokumentua bi urteko hitzartze baten ondotik sortu zen, EHLGren eta Gune Naturalen Kontserbatorioaren sostenguarekin. Herrietako bilkurei, GidaB eta gaikako lantaldeei esker mendiguneko jarduera ekonomikoen diagnostiko bat egin zen. Emaitza horiek erronka ekologikoekin gurutzatu dira helburuak eta ekintzak finkatzeko mendigunearen babesteko eta aldi berean jardueren atxikitzeko.

Hona mendigunearen 5 erronka nagusiak, zeinetarako hogeita hamar bat ekintza identifikatu baitira:

- Laborantza eta hazkuntza ingurumenak eta larre iberiko-atlantikoak
- Mozteko pentze termo-atlantikoak
- Habitat hezeko guneak
- Oihan inguruneak eta dagozkien espezieak
- Gauenarak

2025ean gunea animatzen hasiko da ekintzen obratzeko: LIKN laborantza-kontratu proposamenak, oihan-kontratuak, animazio-egunak, sentsibilizazio-egunak, etab.

Laster helburu-dokumentu honen xehetasunak ukaiten ahalko dituzu herriko etxean edo Euskal Elkargoaren webgunean.

# Parc Naturel Régional (PNR) Montagne Basque

La Montagne Basque (111 communes sur les 158 du Pays Basque Nord) est un **territoire de projet dynamique** qui s'est structuré depuis une quinzaine d'années autour de **réflexions collectives** sur la **cohabitation des activités en montagne** avec une prise de conscience sur l'évolution des usages et pratiques : la montagne n'est plus uniquement le support de travail du monde pastoral mais bien le théâtre d'expression de bien d'autres activités.
En 2003, le Conseil de Développement du Pays Basque produit un rapport intitulé "Concilier l'agropastoralisme, la forêt et les activités de loisirs dans la Montagne Basque". Par la suite, les acteurs locaux se sont mobilisés pour réfléchir collectivement à l'avenir de ce territoire avec la volonté de prendre en main leur destin et de préserver la vitalité, la qualité et la richesse patrimoniale de ce territoire. Près de 200 personnes, élus et représentants de la société civile, ont ainsi participé au travail de **concertation** et **d'élaboration** de la **Charte de développement durable de la Montagne Basque** (2007), à l'initiative des quatre Commissions Syndicales (CS) à vocation pastorale dans le cadre du Projet de territoire Pays Basque 2020 mené par le Conseil des Élus du Pays Basque.
Un premier programme **Leader Montagne Basque 2007-2014** décline cette Charte de façon opérationnelle, avec une enveloppe de financements européens pour soutenir des projets collectifs de développement validés par une gouvernance public-privé. Fort de la dynamique collective engendrée par ce programme, le Conseil des Elus du Pays Basque choisit de porter un second programme **Leader (2014-2020)** ciblé à nouveau sur son territoire de montagne dans lequel naissent les **première réflexions d'un PNR** en Montagne Basque (2014) pour pérenniser l'action sur un plus long terme. Coporté localement par la Communauté d'Agglomération Pays Basque et l'Association des Commissions Syndicales du Pays Basque (EHMEB), une étude d'opportunité et de faisabilité est réalisée de 2017 à 2018 pour vérifier si la Montagne Basque répond aux critères de classement d'un PNR.
Fondée sur la mise en lumière et la valorisation du **triptyque Homme-Nature-Culture**, c'est-à-dire du rôle de l'Homme par ses activités sur cette montagne (biodiversité, paysage, dynamisme, lien social, tourisme, etc.), cette étude est validée par Madame la Préfète de région en 2019. De 2020 à 2022, les élus porteurs du projet PNR ont réalisé différentes « tournées d'information » auprès des élus municipaux et des socioprofessionnels.
Après un travail conséquent sur la gouvernance engagé depuis 2020, le projet PNR Montagne Basque a franchi une étape importante en 2024 avec la création du syndicat mixte de préfiguration, qui porte désormais le projet de création du PNR Montagne Basque. Composé des représentants des membres fondateurs (CAPB, 5 Commissions Syndicales, Région Nouvelle-Aquitaine et Département des Pyrénées-Atlantiques), ce syndicat mixte a comme principale mission d'élaborer la Charte, feuille de route opérationnelle co-construite avec les forces vives du territoire, et de suivre l'ensemble de la procédure administrative de classement jusqu'à l'obtention de la labellisation.
A présent, il est temps d'écrire le contenu de cette Charte : quelles priorités pour la Montagne Basque à horizon 2040 ? Quelle montagne laissons-nous à nos enfants ? Qu'est-ce que l'on souhaite ou qu'est-ce que l'on ne souhaite pas pour cette montagne ?
*Des ateliers de concertation ont commencé en 2024 et se poursuivront en 2025 pour les élus, les habitants, les associations, les socioprofessionnels, …pour construire et écrire ensemble l'avenir souhaité de la Montagne du Pays Basque.*

## *Information APRN - Avis à tous les propriétaires riverains.*

L'APRN réalise un recensement des propriétaires riverains sur le bassin de la Nive et une mise à jour des adhérents de l'association. Si vous êtes propriétaires riverains et adhérents depuis plusieurs générations, nous aimerions mettre à jour vos noms, vos coordonnées ainsi que le numéro de vos parcelles.
Pour cela veuillez nous contacter aux coordonnées ci-dessous ou venir .
Si vous êtes propriétaires riverains et que vous n'avez pas cédé vos baux de pêche la suite est pour vous...
Pourquoi céder vos baux de pêche à l'APRN?
L'Association Agréée pour la Pêche et la Protection des Milieux Aquatiques (AAPPMA) des Propriétaires Riverains de la Nive (APRN), à but non lucratif, défend les droits des propriétaires riverains de part :
* En limitant et en contrôlant les pêcheurs qui accèdent à vos propriétés privées;
* Une surveillance de vos territoires, la lutte contre braconnage et les pollutions;
* Un appui technique et conseil juridique auprès des propriétaires riverains;
* Une réalisation de pêche électrique de sauvegarde ou d'inventaire à coût réduit (-40%);
* L'alevinage des ruisseaux pépinières déficitaires.

Pour toutes informations supplémentaires, nouvelles adhésions, participations volontaires...
Contactez-nous au siège social : 13 route de Bayonne – 64220 Uhart-Cize / 05 59 49 14 48 – 06 08 24 45 21 / info@aprn.fr
Venez à la pêche aux informations sur www.aprn.fr et Facebook

# Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturala (EPN)

Euskal Mendia (Ipar Euskal Herriko 158 herrietatik 111 biltzen dituen eremua) **proiektu dinamiko bat duen lurraldea da**, duela hamabost urte inguru egituratu zena, **mendiko jardueren arteko elkarbizitzaren inguruko hausnarketa kolektiboen bidez** eta erabileren eta jardueren bilakaeraren inguruko kontzientzia hartze batekin: mendia ez da gehiago hazkuntzarako lan-tresna soilik, beste hainbat jardueretarako eremua ere bada.
2003an, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak “Agropastoralismoa, oihana eta aisialdi jarduerak uztartu Euskal Mendian” txostena landu zuen. Ondotik, tokiko eragileak mobilizatu ziren lurraldearen etorkizunaren inguruan elkarrekin hausnartzeko eta tokiko ondarearen bizia, kalitatea eta aberastasuna mantentzeko. 200 pertsona inguru bildu ziren, hautetsiak eta jendarte zibileko ordezkariak, **Euskal Mendiari buruzko Garapen Iraunkorreko Hitzarmen bat elkarrekin lantzeko** (2007), Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren Euskal Herria 2020 Lurralde proiektuaren baitan pastoralismoaz arduratzen ziren lau Sindikatu Batzordeek bultzaturik. **Euskal Mendia 2007-2014** Leader programak eraman zuen hitzarmen hori ekintzetara, gobernantza publiko-pribatua zuten garapen proiektu kolektiboak finantzatzeko Europako funts batekin. Programa horrek sortu zuen dinamika kolektibo azkarraz oharturik, Ipar Euskal Herriko hautetsien kontseiluak erabaki zuen bigarren **Leader** programa bat (**2014-2020**) abiatzea mendiko eskualde horri zuzendua. Momentu horretan sortu ziren **Parke Naturalari buruzko lehen gogoetak** (2014), ekintza epe luzeagoan iraunarazteko xedearekin. 2017-2018an Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturala (EPN) proiektuaren egingarritasuna aztertu zen, Euskal Hirigune Elkargoak eta Euskal Herriko Mendi Elkargoen Batasunak egin egokitasun eta egingarritasun ikerketa baten bidez, segurtatzeko Euskal Mendiak EPNen irizpideak betetzen zituela. Ikerketa horren oinarria **Pertsona-Natura-Kultura** triptikoa argitan ezartzea eta balioztatzea zen, hau da, Pertsonak mendian betetzen duen rola, bere jardueren bidez (bioaniztasuna, paisaiak, dinamika, lotura soziala, turismoa, etab.).  2019an Eskualdeko Prefetak ikerketa onartu zuen. 2020 eta 2022 artean, EPN proiektua sustatu zuten hautetsiek «informazio birak» egin zituzten herriko etxeetako hautetsiekin eta sozioprofesionalekin bilduz.
2020an gobernantzari buruzko lanketa abiatu ondotik, Euskal Mendia EPNaren proiektuak urrats garrantzitsua eman du 2024an prefiguraziorako sindikatu misto baten sorrerarekin, egitura horrek baitu hemendik aitzina Euskal Mendia EPNaren sorrera proiektua gidatuko. Kide sortzaileetako ordezkariek osatzen dute (Euskal Elkargoa, 5 Sindikatu Batzorde, Akitania Berria Eskualdea eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua) eta sindikatu misto honen eginkizun nagusiak lurraldeko eragileekin batera Hitzarmena edo bide-orri operazional bat eraikitzea eta sailkatzearen administrazio-prozedura izendapena lortu arte segitzea dira.
Orain, Hitzarmen horren edukia idatzi behar da: zein dira Euskal Mendiaren lehentasunak 2040ari begira? Nolako mendia utziko diegu gure haurrei? Zer espero dugu eta zer ez dugu espero mendi eremu horretan? Elkar aditze tailerrak abiatu dira 2024an eta 2025ean segituko dira hautetsiekin, herritarrekin, elkarteekin, sozioprofesionalekin… Euskal Mendiaren etorkizuna elkarrekin idazten eta eraikitzen segitzeko.

## *EJEEk eman argibideak - Abisua jabe egoiliar guzientzat.*

EJEEk jabe egoiliarren kontaketa egiten du Errobiko eremuan eta elkarteko kideen eguneratzea.
Jabe egoiliarra baldin bazara duela zenbait belaunaldi, nahi genituzke zure izen, helbide eta lursailaren zenbakia eguneratu. Horretarako, jar zaitez gurekin harremanetan behereko zenbaki/helbidearen bidez.
Jabe egoiliarra baldin bazara eta ez baldin badituzu zure arrantza-kontratuak saldu, ondokoa zuretako da...
Zergatik zure arrantza-kontratuak EJEE elkarteari utzi?
Errobiko Jabe Egoiliarren Elkarteko (EJEE) Arrantzarako eta Ur Inguruneko Babesaren Elkarte Onetsia (AUIBEO) irabazteko xederik gabekoa da eta jabe egoiliarren eskubideak defendatzen ditu:

* Zure jabego pribatuan sartzen diren arrantzaleak mugatuz eta kontrolatuz;
* Zure lurrak zainduz, basa ihiziaren eta kutsaduren kontra eginez;
* Laguntza teknikoa eta aholku juridikoak eskainiz jabe egoiliarrei;
* Zaintzarako arrantza elektrikoa eginez edo inbentarioa kostu mugatuan (- % 40);
* Eskas den erreketan arrain umeak ezarriz.

Argibide gehiagoren ukaiteko, kidetzeko edo manera boluntarioan parte hartzeko...
Jar zaitez gurekin harremanetan gure egoitza sozialean: Baionako bidea, 13 – 64220 Uharte Garazi
05 59 49 14 48 – 06 08 24 45 21 / info@aprn.fr
Argibide gehiago: www.aprn.fr eta Facebook

# Gure Gain

L'année 2024 a été riche pour l'association Gure Gain, qui continue de jouer un rôle essentiel dans la vie de notre commune. Lors de la prise de poste en janvier de notre animatrice Charline VERNIER, l'objectif était de poursuivre les initiatives de Lucie TROGNON, sa prédécesseuse, en créant du lien et en accompagnant les agriculteurs de notre territoire.

Voici un aperçu des activités marquantes de cette année :

**Emploi Partagé** : Gure Gain a organisé une réunion d'information en février, réunissant 32 agriculteurs. À la suite de cette rencontre, ils ont été recontactés afin de recenser précisément leurs besoins. Depuis, plusieurs groupes d'emploi partagé ont été créés : l'un couvrant Hélette, Macaye, Mendionde et Ayherre, avec un recrutement qui a débuté le 1er juin, et l'autre sur Irissarry, dont le recrutement est en cours.

**Circuits Courts** : Dans un premier temps, une commission de travail sur les circuits courts a été mise en place pour répertorier les producteurs et transformateurs de notre territoire. Un questionnaire approfondi a été créé pour recenser leurs productions, débouchés et besoins, avec l'objectif de faire émerger des projets collectifs. Dans un second temps, le but sera de promouvoir les produits locaux grâce à des actions de communication visant à rapprocher producteurs et consommateurs, augmentant ainsi leur visibilité.

**Journée de Médiation en Montagne** : En partenariat avec la CAPB, notre animatrice a participé à plusieurs journées de médiation en montagne (Ursuya et Baïgura). Ces rencontres ont permis de faciliter les échanges avec les différents usagers de la montagne, en leur présentant les différentes activités agro-pastorales et en les sensibilisant aux bonnes pratiques en montagne.

**Site Internet** : L'association a lancé son nouveau site internet, une plateforme moderne et ludique qui comporte plusieurs fonctionnalités :

- Une présentation détaillée de notre association et de ses missions ;
- Des actualités sur les actions et projets réalisés ;
- Des annonces de nos événements à venir ;
- Des informations sur les producteurs de notre territoire et les lieux de vente.

Visitez notre site à l'adresse suivante : ***associationguregain.com***
Ou en scannant le QR code ci-joint avec votre téléphone.

**Mobilisation des Élus** : Enfin, nous tenons à souligner la mobilisation des élus de notre association. Leur engagement bénévole est indispensable au bon fonctionnement et à l'avancée de notre projet associatif. Nous encourageons également les agriculteurs à saisir cette opportunité de se faire accompagner via notre association.

**Pour plus d'informations, contactez-nous par téléphone : 07 88 44 24 86**

**Ou par mail : contact@guregain.com**

# Gure Gain

2024. urtea aberatsa izan da Gure Gain elkartearendako, eginkizun nagusia du gure herriko bizian. Charline VERNIER animatzailean lanean hasi zelarik, helburua zen Lucie TROGNON aitzineko langilearen ekimenak segitzea gure lurraldeko laborariekin harremanak sortuz eta haiek lagunduz.

Hona aurtengo aktibitate nagusiak:

**Enplegu partekatua**: Gure Gain elkarteak argibide bilkura bat antolatu zuen otsailean, eta 32 laborari bildu ziren. Elkartze horren ondotik, berriz deitu dira haien beharrak zehazki zerrendatzeko. Geroztik, enplegu partekatu talde bat baino gehiago sortu da: batek Heleta, Makea, Lekorne eta Aiherra estaltzen du ekainaren 1az geroztik, eta besteak Irisarri (langilearen hautatzea bidean da).

**Zirkuitu laburrak**: Lehenik, zirkuitu laburrei buruzko lan batzorde bat plantan ezarri zen gure lurraldeko ekoizleak eta transformatzaileak zerrendatzeko. Galdeketa sakona sortu zen haien ekoizpenak, salbideak eta beharrak zerrendatzeko proiektu kolektiboak agerrarazteko xedez. Ondotik, helburua izanen da tokiko ekoizpenak sustatzea ekoizleak eta kontsumitzaileak elkartzeko xedea duten komunikazio ekintzen bidez, haien ikusgarritasuna emendatuz.

**Mendiko bitartekaritza eguna**: Euskal Hirigune Elkargoarekin partaidetzan, gure animatzaileak mendiko bitartekaritza egunetan parte hartu du (Urtsua eta Baigura). Topaketa horiei esker harremanak sortu dira erabiltzaileen artean laborantza eta hazkuntza jarduerak aurkeztuz eta mendiko praktika onei sentsibilizatuz.

**Webgunea**: Elkarteak bere webgune berria ireki du, plataforma modernoa eta ludikoa da, funtzionaltasun batekin baino gehiagorekin:

- Elkartearen eta haren eginkizunen aurkezpen xehea;
- Ekintzei eta obratu proiektuei buruzko berriak;
- Jitekoak diren gure ekitaldien jakinaraztea;
- Argibideak gure lurraldeko ekoizleei buruz eta salmenta lekuei buruz.

Gure webgunea: **associationguregain.com**
Edo hemengo QR kodea eskaneatuz zure telefonoaren bidez.

**Hautetsien mobilizazioa**: Azkenik, gure elkarteko hautetsien mobilizazioa azpimarratu nahi dugu. Borondate oneko haien engaiamendua funtsezkoa da elkartearen funtzionamendu onerako eta gure proiektuaren aitzinarazteko. Laborariak ere sustatzen ditugu gure elkartearen bidez laguntza ukaiteko paradaz baliatzeko.

**Argibide gehiagoren ukaiteko, sar zaitez gurekin harremanetan: 07 88 44 24 86**

**Edo e-postaz: contact@guregain.com**

# Gaztaina

L'association Gaztaina est née en 2018 pour réhabiliter, promouvoir et valoriser la châtaigne du Pays Basque. Son champ d'action s'étend sur tout le pays basque nord. L'association rassemble aujourd'hui 30 adhérents dont 9 communes et 21 porteurs de projet (castanéiculteurs, propriétaires fonciers ou transformateurs). Accompagnée par Euskal Herriko Laborantza Ganbara, l'association travaille sur la structuration d'une filière châtaigne au Pays Basque qui constituait autrefois une culture vivrière du secteur. Les travaux menés sont financés par la Communauté d'Agglomération Pays Basque et par la Région Nouvelle-Aquitaine.



Le travail débute avec la connaissance du patrimoine local. Depuis 2024, l'association étudie les arbres supposés intéressants pour des critères de qualité de fruit ou de potentiel de production. L'objectif à terme sera de mettre en avant ces variétés. Le travail consiste à décrire ces arbres (fleurs, feuilles et fruits) et prélever des échantillons pour les étudier (analyse génétique) et les photographier. Les fruits sont ensuite dégustés pour une analyse organoleptique de la variété.

En parallèle, l'association travaille en partenariat avec les communes adhérentes de l'association pour planter des vergers conservatoires. En 2024, 3 vergers ont été plantés puis greffés sur Bidarray, Hélette et Hasparren avec en majorité des variétés issues du travail d'identification. En 2025, 2 autres vergers seront plantés sur Macaye et sur Mendionde.

L'association a rencontré les filières Xapata (production de cerises) et Sagartzea (production de pommes) pour évaluer quels sont besoins des filières arboricoles du secteur et s'il est possible de mutualiser les moyens. Il semblerait que toutes aient besoin d'un accompagnement technique.

5 castanéiculteurs se sont également regroupés pour partager un atelier de transformation de châtaignes sur Macaye et ont récemment rejoint la CUMA Elgarrekin de Mendionde. L'atelier est divisé en 3 parties : le calibrage, l'épluchage et la transformation. La ligne d'épluchage a été rajoutée en 2024 et représente un investissement de 40 000 €. Cette année, les conditions météorologiques ont favorisé une production de châtaignes de qualité. Il n'en fallait pas moins pour motiver les membres du groupe qui ont ramassé un total de 12 tonnes de châtaignes ! L'atelier a la capacité d'absorber plus de volumes et le groupe recherche de nouveaux producteurs. La seule condition pour pouvoir intégrer le groupe est d'adhérer à l'association Gaztaina (30€).

L'association organise une réunion ouverte à tout le monde pour présenter le travail mené et le projet à venir le 17 janvier à 20h à Bidarray.
N'hésitez pas à contacter l'association pour plus de renseignements : associationgaztaina@gmail.com

# Gaztaina

Gaztaina elkartea 2018an sortu zen Euskal Herriko gaztainaren suspertzeko, sustatzeko eta balorizatzeko. Ipar Euskal Herri osoan obratzen du. Elkartean bada 30 bat kide, horien artean 9 herri eta 21 proiektu eramaile (gaztaina lantzen dutenak, lur jabeak eta transformatzaileak). Euskal Herriko Laborantza Ganbarak lagundurik, elkartea lanean ari da Ipar Euskal Herrian gaztaina adarraren egituratzeko, lehen eskualdeko janari-laborantza baitzen. Lanak Euskal Hirigune Elkargoak ditu finantzatzen eta Akitania Berria eskualdeak.

Lana hasten da tokiko ondarea ezagutuz. 2024az geroztik, elkarteak fruitu kalitaterako edo ekoizpen ahalmenerako interesgarriak diren arbolak ikertzen ditu. Helburua da arbola mota horiek aitzinera ematea. Lan horretan arbola horiek deskribatzen dira (loreak, hostoak eta fruituak) eta laginak hartzen ikertzeko (analisia genetikoa) eta argazkitan hartzen. Ondotik fruituak dastatuak dira motaren azterketa organoleptikoa egiteko.



Aldi berean, elkartea lankidetzan ari da elkartearen kide diren herriekin kontserbatzeko gaztainadiak landatzeko. 2024an, 3 gaztainadi landatu ziren eta txertatu Bidarrain, Heletan eta Hazparnen, gehienak identifikazio lanetik atera motak ziren. 2025ean beste 2 gaztainadi landatuko dira Makean eta Lekornen.

Elkartea Xapata (gereziak) eta Sagartzea (sagarrak) adarrekin elkartu da estimatzeko arbola adarren beharra zein den lurraldean, eta baliabideak mutualizatzea posible den ikusteko. Iduriz denek laguntza teknikoa behar dute.

5 gaztaina egile bildu dira gaztainaren transformazio lantegi baten partekatzeko Makean eta berriki Lekorneko Elgarrekin CUMAn sartu dira. Lantegia hiru partetan bereizia da: neurriaren araberako sailkatzea, zuritzea eta transformatzea. Zuritze partea 2024an gehitu zen eta 40 000 € kostatu ditu. Aurten, aroa aldekoa izan da kalitatezko gaztaina ekoizteko. Ez zen gehiagoren beharrik taldekideen motibatzeko, eta orotara 12 tona gaztaina bildu dituzte! Lantegian bolumen gehiago landu daiteke eta taldeak ekoizle berriak xerkatzen ditu. Taldean sartzeko baldintza bakarra da Gaztaina elkarteari kidetzea (30€).

Elkarteak bilkura bat antolatzen du denei irekia urtarrilaren 17an, 20:00etan, Bidarrain, eta egin lana eta proiektua aurkeztuko ditu.
Ez duda elkartearekin harremanetan sartzea argibide gehiagoren ukaiteko:
associationgaztaina@gmail.com

## Makea eta Lekorneko eskola publikoa - L'école publique RPI de Macaye Mendionde

Depuis la rentrée de septembre 2024, le RPI Macaye-Mendionde accueille 58 élèves, dont 53 en filière bilingue.
2024ko irailetik geroz 58 ikasle dira 2 eskoletan. Horietarik 53 elebidun sailean dira.

2023-2024 urtea proiektuz aberatsa izan da.
L'année 2023 – 2024 a été riche en projets.

Comme chaque année, les élèves du CE2 au CM2 de Mendionde vont à la piscine d'Hasparren en septembre / octobre.  Les CP/CE1 vont à la piscine de Cambo en mai/juin.
Urte guziz bezala, Lekorneko eskolako CE2, CM1 eta CM2 ko ikasleak Hazparneko pizinara joan ziren iraila eta urrian. CP eta CE1 ko haurrak aldiz Kanboko pizinara joan ziren maiatza eta ekainean.





En février, nous avons fêté Carnaval, à l'école, puis lors d'une journée organisée par l'Association de Parents d'élèves.
Otsailean, ihauteriak ospatu ginituen. Lekorneko eskolan lehenik, denek elgarrekin eta Burrasoen elkarteak antolatu beste egun baten bitartez ere. Ihaute ! Ihaute !





Les CM1 et les CM2 ont participé à un projet d'écriture d'une pièce de théâtre, avec 7 autres classes du Pays Basque : Interdit aux moins de 18 ans.
Ils ont ensuite assisté à la représentation présentée par des élèves du conservatoire de Bayonne.
Euskal Herriko beste 7 gelekin, Lekorneko CM1 eat CM2 ko ikasleek antzerki lan bat idatzi zuten : 18 urte petikakoer debekatua. Ondotik, antzerki hori Baionako kontserbatorioan ikusi zuten.





## Makea eta Lekorneko eskola publikoa - L’école publique RPI de Macaye Mendionde

Apirilaren 13an, eskolako besta iragan zen. Aurtengo gaia itsasoa izan zen : kantu, dantza eta olerki ederrak aurkeztu zituzten.

Le 13 avril, le spectacle de la fête scolaire a été présenté aux parents. Le thème principal était la mer, les élèves ont chanté, dansé et lu de beaux textes poétiques.





Urtea ederki bukatzeko, CP tik CM2 arteko ikasleak Zokoara joan ziren bela ontzia egiteko baita itsas bazterra ezagutzeko eta oinez arrantzatzeko.

Pour clôturer l’année scolaire, les élèves du CP au CM2 sont partis en séjour scolaire à Socoa pour 3 jours. Les élèves ont fait de la voile, un jeu de piste et de la pêche à pied, du bateau.











Les élèves de maternelle, CP et CE1 ont agréablement clôturé l’année, en se rendant au musée de  la mer.

Ama eskolako haurrek eta CP CE1 eko ikasleek, urtea ongi bukatu dute, Miarritzeko itsas museoa bisitatuz.




| Ecole publique de Macaye / Makeako eskola publikoa | Ecole Publique de Mendionde / Lekorneko eskola publikoa |
|---|---|
| 35 Mindegiko plaza | 94, Zelaiako errepidea |
| 64240 Macaye | 64 240 Mendionde |
| Tél. : 05 59 93 33 38 | Tél. : 05 59 29 63 54 |
| Mail: ce.0640969f@ac-bordeaux.fr | Mail : ce.0640973k@ac-bordeaux.fr |




# Baigura ikastola

Makear agurgarriak,
Baigura Ikastolak 60 ikasle kontatzen ditu urte hastapen huntan. Bost erakasle eta hiru laguntzaile haietaz okupatzen dira egunero.
Hainbat gai jorratzen dira ikasturtean zehar: elkar bizitzea eta zirkua, hegaztiak eta Eguberri, ihauteriak eta diaspora, arrantza (Hondarribian aurreikusitako ateraldi batekin), azkenik, atzoko eta gaurko komunikabideak. Beste gai orokor batzuk ere lantzen ari dira aurten: komunikazio ez bortitza, inklusioa eta aniztasuna.
Ikastolak parte hartuko du ere “10 egun pantailarik gabe” desafioan heldu den maiatzan.
Elkarteko bulegoa ez da kanbiatu : Arantxa Uhalde eta Ramuntxo Duhart ko-lehendakariak dira, Aña Inchauspe diruzaina eta Paul Mendiburu idazkaria.
Ikastolan ikasleek euskaraz ikasten dute eta euskaraz bizi dira. Haurra, klasetan, aire hartze denboretan, kantinan eta haurtzaindegian ingurumen euskaldun batean murgiltzen da. Frantsesa, irakaskuntzako hizkuntza gisa, lehen mailako bigarren urtean sartzen da pixkanaka. “Ate idekiak” egunean, 2025-eko otsailaren 8an iraganen dena aurten goizarekin, gure egoitza eta gure hezkuntza-proiektua gehiago ezagutzen ahalko dituzue. Edozein galderari erantzunten ahalko dugu egun hortan.
Animazioek erritmoa emaiten dute urteari.  Funtsezkoak dira, laguntzaile postuak diruztatzeko besteak beste : kontzertu gaualdi urrian, bixkotx salmentak, ogi labearen besta, Herri Urrats, tokiko beste elkarte batzuek antolatutako ekitaldietan parte hartzea (Lekorne eta Makeako bestak, Libertimentua, Nafarroaren Eguna, Euskal Selekzioaren Besta), etab. Aukera ainitz ikusten duzuen bezala Baigura Ikastolari zuen sustengua emaiteko. Ogi Labearen Besta apirilaren 6an iraganen da aurten, igandez.
Urte berri on deneri !
Baigura Ikastola – 05.59.56.92.49 – baigura.ikastola@outlook.fr

# Mendien Artean - Makeako komitea

Makearrak, Egun on,
Lehendabizik nola ez aipa 2024 urteko Makeako bestak. Edizio honek herritarrak eta kampotiarrak biltzeko nahia adierazi du programazio eder baten inguruan. Maleruski, ilusio handia izan da, eguraldia ez baita gure alde izan. Egun horietan izandako eurite handiek hainbat kontzertu bertan behera uztera behartu gaituzte. Erabaki zaila izan da, baina beharrezkoa, guztion segurtasuna bermatzeko. Ezuste horien kudeatzea gogorra izan bada ere, komiteak egoera bakoitza egokitzen jakin du, besta giroa mantentzeko ahalegin guztia eginez. Halere, gertaera haiek gure determinazioa areagotu dute. 2025eko edizioa irudikatzen eta prestatzen hasi gira jada, besta ahaztezinak eskaintzeko asmoz, eta, oraingoan, eguzkiak lagunduta izango direla espero dugu.
Bestalde, Pesta Berri mantentzea erabakia izan da ekainean. Makeako eliza hobretan zenez, 2024ean Lekornen iragan da.
Horrez gain, nola ez aipa pala txapelketa. Hona emen 2024ko txapeldunak:
- 1 maila: Darribat / Darribat
- 2 maila: Bergeres / Leduc
- 3 maila: Haran / Saragueta

Eskertu nahi genituzke lau hilabetez epaile ari diren Mendi artean elkarteko gazteak.
Urtarrilean, sagarnotegi afari baten antolatzeko plazerra izan dugu, Makeako herritar guziei ateak zabalduz. Ateraldi honek orroitzapen bikainen sortzeaz gain, belaunaldi desberdinen biltzea eta batzea permititu du. Lehen edizio honen arrakasta ikusiz, jakinarazten dizuegu esperientzia eder hau aurten berriz ere antolatuko dela. Laster arte, besta are handiago batean elkartzeko!
Bukatzeko, neguan, ingurumena hoztu bada ere gure bazterrak berotu ditugu kaskarrotekin, dantza xarmant batzu emanez eta sustut gure zirtzilkeriekin etxeak animatuz. 2025 urtean ere ez gira geldituko !
Beraz zuen bazterretan adi egon negu huntan ere ez baikira urrun egonen…
Makeako besta elkarteak urte eder eta zoriontsu bat desiratzen dautzue !

# Baigura ikastola

Chers makears,
Baigura Ikastola compte 60 enfants en ce début d'année 2025. Cinq enseignants et trois laguntzaile les accompagnent également au quotidien.
Plusieurs thèmes sont abordés tout au long des 5 périodes lors de cette année scolaire : le vivre ensemble et le cirque, les oiseaux et Noël, le carnaval et la diaspora, la pêche avec une sortie prévue à Fontarrabie, et enfin les moyens de communication d'hier et d'aujourd'hui. D'autres thèmes transversaux sont travaillés cette année : la communication non violente, l'inclusion et la diversité.
L'ikastola participera également au défi « 10 jours sans écran » mai prochain.
Le Bureau de l'association est inchangé. Arantxa Uhalde et Ramuntxo Duhart sont co-présidents, Aña Inchauspé trésorière et Paul Mendiburu secrétaire.
A l'ikastola, les élèves apprennent en basque et vivent en basque. L'enfant est plongé dans un environnement bascophone que ce soit dans les classes, durant les récréations, à la cantine ou à la garderie. Le français, en tant que langue d'enseignement, est introduit progressivement dès le CE1. Lors de la journée « portes ouvertes », qui se déroulera le samedi 8 février 2025 de 9h à 12h, nous pourrons vous faire découvrir nos locaux ainsi que notre projet éducatif, le système bilingue immersif, et répondre aux éventuelles questions.
Les animations, essentielles pour financer notamment les postes de laguntzaile, rythment l'année scolaire : soirée concert en octobre, vente de gâteaux, fête du four à pain, Herri Urrats, participation à des événements organisés par d'autres associations locales (fêtes de Mendionde et de Macaye, Libertimentua, Nafarroaren Eguna, Euskal Selekzioaren Besta), etc. Beaucoup d'occasions comme vous le voyez pour soutenir Baigura Ikastola. La fête du four à pain, « ogi labearen besta » se déroulera le dimanche 6 avril cette année.
Urte berri on deneri !
Baigura Ikastola - 05.59.56.92.49 – baigura.ikastola@outlook.fr

# Mendien Artean - Comité des fêtes

L'année 2024 a débuté avec les Fêtes de Macaye, un événement attendu et préparé avec soin pour rassembler habitants et visiteurs autour d'un beau programme festif. Cependant, si l'enthousiasme était au rendez-vous, la météo, elle, n'a pas été clémente. Les fortes pluies qui ont marqué ces journées ont malheureusement contraint à l'annulation de plusieurs concerts, une décision difficile mais nécessaire pour garantir la sécurité de tous. La gestion de ces imprévus s'est révélée complexe, mais l'équipe a su faire face, s'adaptant à chaque situation pour maintenir, malgré tout, l'esprit des fêtes. Ces défis, loin de nous décourager, ont renforcé notre détermination. Ils nous ont motivés à imaginer dès maintenant un programme tout aussi beau pour l'édition 2025, afin de garantir des festivités inoubliables et, espérons-le, accompagnées cette fois d'un soleil radieux.
Au mois de juin, Pesta Berri aussi a su faire sa place. En effet, l'église de Macaye étant en travaux, cette année l'événement s'est déroulé à Mendionde.
De plus, comme chaque année, le tournoi de pala est organisé. Petit rappel des gagnants de cette année :
- 1 série: Darribat / Darribat
- 2 série: Bergeres / Leduc
- 3 série: Haran / Saragueta

Nous aimerions particulièrement remercier les jeunes du comité Mendi Artean qui s'improvise arbitre pendant quatre mois.
En janvier, le comité des fêtes a eu le plaisir d'organiser un repas cidrerie, ouvrant ses portes à tous les villageois. Cet événement chaleureux et convivial a permis de rassembler toutes les générations dans une ambiance festive. Face au succès de cette première édition et à l'enthousiasme suscité, le Comité des Fêtes est heureux d'annoncer que cette belle expérience sera renouvelée cette année.
Pour finir, un petit mot concernant les kaskarrot qui ont su nous réchauffer en période hivernale en mettant l'ambiance et animant les maisons de Macaye. Ne vous inquiétez pas nous nous tenons prêts pour cette année 2025 … Sur ces belles paroles le comité des fêtes vous souhaite une belle et heureuse année 2025 !

# Urtsuko Xoriak

***Xoriak xori... lau haizetarat***

2024, urte gaitza izan zen Urtsuko Xoriak taldearentzat usaiako ateraldiak eginik neguan eta primaderan. Ez ohizkoak izan ziren udako agerraldiak Kabalkadan eta larrazkenean Harrixurin Luhuson eta Lurraman Miarritzen. Lorian dantzariak eta batzuetan errestan espartinak ! 2025ean barranda gutiago biziko da bainan hala ere egun handi baten mentura bada, maiatzaren 3an larunbatarekin : taldearen urte muga ospatuko dugu, Lekorneko plazan. Egitaraua pikoan izanen delarik hedatuko da xehetasun gehiago. Oinarria : dantza ! Gurea eta gomita(k) ? 45 urteren buruan, egun ere 100 dantzari murgiltzen dira, auzo herrietatik ere. Musikariak eskas ditugu bainan multxo batek segitzen gaitu : esker mila horier !

***Harri batez bi xori***

Musikaren doinuan errepikak Hodialdean egiten dira, Xexili ETCHETO-JAURENA eta Maitane EYHERAMOUNHO hegalen pean. Iaz Pierre LATASA-k ere erakasten zituen euskal dantzak taldeko haur eta gazteer ; aurten kostalderat airatu da. 2025an Ursuia trinketaren arraberritzearekin betan, dantza gela bat altxatuko da, hegian. Ohantze ederra izanen da : zola egokitua, mirailak, soinu eta musika tresneria. Partekatuko da gela beste elkarteekin. Artean kurtso batzu eskolako aterbean kokatzen dira. Elkartea ez baita ogi metaren gaineko xoria, batasunaren bizia diruztatuko da eguberriko bixkotx salmentekin eta ihauterietako etxe kurridarekin nun beste xori mota bat agertzekotan den otsailan, omen... Hartza....Neguaren azken uztarrak eta primaderaren hatsa, hartza berrabiatzen delarik.

***Xoriak kantari***

Ihauterietan dantzari eta kantari dira gazteak. Ukan dezatela usaiako ongi etorria. Kabalkadako jantziekin kurrituko dira, urtso xuriak bezala ? Noski ezetz, ohitura desberdina delako, zentzu diferenta ere, gaiaz kanpo etab. Gure xoriek badakite mundu huntan zer gertatzen den. Jantziak dira herritarren eta bi euskaldun jostun kreatzaileen sormena, herritar bolondresen lan baliosa eta urria, dantzari bakotxaren ekarpena eta diru laguntzaren emaitza. Esker mila guzier. Proiektu herrikoi baten emanaldia da. Soka luze bat beraz. Ez nolanahika baliatzeko...zokoratu gabe ere. Ez dira sosuak, ez dute burua galduko. Oinarria dantza da eta dantzari bilakatzeko, urratsez urrats ikasten dira dantzak eta gure elkartean kide izanez ttipitik (hobe).



# Urtsuko Xoriak

***Dansons aux frontons !***

Dans le fameux chant Kontrapas de Bernat Etxepare imprimé vers 1545 (l'un des écrits les plus anciens, imprimé retrouvé et écrit en euskara) on fredonne "euskara jalgi hadi plazarat". A cette même édition s'ajoute un deuxième écrit au titre révélateur : "Euskara da kanpora eta goazen oro dantzara". Cela fait belle lurette que l'on danse sur les places, rien de nouveau. Mais 2024 fut prolifique voire épique : kabalkada, Zugarramurdi, Lurrama, Harrixuri, auxquels s'ajoutent les habituels rendez-vous villageois (3) et fédéraux (2) sans oublier les dates écartées. Nos corps et esprits s'en sont réjouit, nos espadrilles en ont pâti ! Qu'à cela ne tienne, le groupe continue d'avancer : en 2024 tambour battant, en 2025 à pas de velours ? Oui et non : rendez-vous habituels, stages... et les 45 ans du groupe : le samedi 3 mai 2025 à Mendionde. A l'affiche... roulement de tambours... et surprise annoncée prochainement. Il faut en garder sous le pied d'ici là ! Ce qui est sûr c'est qu'entre 1545 et 2025, se sont écoulées 480 années, dont 45 années de vie pour Urtsuko Xoriak. Que cette histoire continue de s'écrire aux pas des 100 danseuses et danseurs actuels. Sans oublier les musiciennes et musiciens qui nous accompagnent allègrement et que l'on ne remerciera jamais assez.

***Répétons au diapason...***

Au diapason des musiques, les répétitions se font à Hodialdean principalement. Au diapason aussi de la rénovation du trinquet, une salle de danse sera créée dans son prolongement latéral. Très bonne nouvelle pour Urtsuko Xoriak qui en bénéficiera de façon partagée. Tout équipé (glaces, barre d'échauffement, sol adéquat, sonorisation musicale etc) un bel outil de travail est en perspective. Entre-temps et de temps-en-temps les cours sont aussi assurés dans un préau (moins réjouissant... mais formateur), sous la houlette de Xexili ETCHETO-JAURENA et Maitane EYHERAMOUNHO. Cette dernière ayant pris le relais de Pierre LATASA le kaskarot parti voguer vers d'autres horizons. Milesker aux trois !. Leur travail porte ses fruits et cela sera d'actualité en février pour Ihauteriak, en mars pour les personnes âgées, en avril pour Ogi labea, en mai pour Dantzari Ttiki & Dantzari Eguna et les 45 ans d'Urtsuko Xoriak. Avant cet horizon : gâteaux et bûches à foison pour la vente de Noël qui permet d'équilibrer les comptes, tout comme le passage des danseurs et des jeunes du village dans les foyers, dans la cadre post-hivernal du retour de l'ours... Tiens-tiens, l'ours est de retour ?

***Flonflon & frou-frou & flouze ?***

Au flonflon des musiciens lors du passage des jeunes en février, pourrait s'ajouter le frou-frou des vêtements resplendissants confectionnés pour la cavalcade 2024 ? Oh que non : contexte, période, signification tradition et enjeu différents. Fruit du travail collectif, villageois et ténu de couturières et couturiers durant 2023 et 2024, ces vêtements ont conjointement été financés par des aides et par le village, à travers le milieu associatif et la participation personnelle des danseuses et danseurs. Du flouze herritar pour des costumes herritar. Gora Herria ! Urtsuko Xoriak remercie tout le monde, s'en trouve dépositaire et en fera un apparat utilitaire de danse utilisé avec parcimonie, sans le laisser miter pour autant. L'habit ne faisant pas le moine, c'est la danse et son apprentissage qui priment avant tout. Le reste en découlera pour les prochains danseurs.
En 1545 et 2025 bis repetita : goazen oro dantzara !

# Jostakin

Makear Agurgarriak,

Libertimendua , otsailaren 10ean iragan zen Irisarriko plazan. Baigura inguruko herrietako gazte ainitzek parte hartu zuten.
2025 urteko Libertimendua otsailaren 23an iraganen da Heletako herrian .

Kaxkarrotak , otsailaren 17an iragan ziren. Herriko gazteak, Makeako etxeetan giro goxo batean errezebituak izan ziren.

Antzerki / Filma tailerra : 2024 urtean 15 haur eta gazteek (Makearrak eta auzo herrietakoak) filma bat ekoiztu zuten, Zukugailu elkartearen laguntza teknikoa eta materialekin. Filma « Azken Euskaldunak » haurrek ekainean idatzi zuten eta uztailan grabatu eta muntatu zuten.
